

Limoi bat imintziorik egin gabe jaten baduzu





Sergi Pamies | (Paris, 1960) idazle, itzultzaile eta kazetari katalana da. *T'hauria de caure da cara de vergonya* (1986) liburua argitaratu zuenetik, hainbat sari eskuratu ditu. Ipuin liburu ugari idatzi ditu, hala nola, *L'últim llibre de Sergi Pàmies* (2000), *Si menges una llimona sense fer ganyotes* (2006) edo haren azken liburua, *La bicicleta estàtica* (2010). Hiru eleberrri idatzi ditu: *La primera pedra* (1990), *L'instint* (1992) eta *Sentimental* (1995). Bestetik, Guillaume Apollinaire, Agota Kristof, Amelie Nothomb eta beste hainbat egile ezagunen obrak itzuli ditu.

Sergi Pamies

Limoi bat
imintziorik egin gabe
jaten baduzu

Itzulpena

Gerardo Markuleta



OBRA HONEN ITZULPENAK
INSTITUT RAMON LLULL-EN LAGUNTZA JASO DU

LLL institut
ramon llull
Hizkuntza eta kultura katalanak

LEHEN EDIZIOA
*Si menges una llimona sense fer
ganyotes.* Quaderns Crema,
Bartzelona, 2006

KATALANETIK ITZULPENA
Gerardo Markuleta

LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2011ko urria

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Sergi Pamiesek
OBRARENA
© Gerardo Markuleta
ITZULPENARENA

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.
San Isidro, 35-1A
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

amaiur

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

© Mark Hooperrek
AZALAREN ARGAZKIARENA

INPRIMAKETA
RGM

Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN
978-84-8136-465-1
LEGE GORDAILUA
BI. 2.733-11

txalaparta 

—Ez duzu errebelatzeko asmorik izango, ezta?

—Zeren aurka?

Doctor Katz marrazki bizidunen
telesaileko elkarrizketa.

BESTE BIZITZA

HIL EGIN BEHAR IZAN NUEN maite ote ninduten jakiteko. Bizi nintzela, ez nuen sekula itzal handiegirik izan, eta horrek autoestimu arazoa ekarri zidan; diziplina handiz eta arrakasta txikiz gudukatu nuen. Etxean, elkarrizketa nik neuk hasi ezean, ez seme-alabek ez emazteak ez zuten niri, ohar zehazki funtzionalez gainera, zipitzik ere esateko premiarik sentitzen. Lantokian, gaixorik jartzen banintzen, inork ez zuen nire falta sumatzen. Horregatik ez nintzen harritu nire heriotzak sortutako erreakzioekin. Famili etxebizitzaz jabetu zen nahigabe diskretu hura, ezin berdinduzko galera batekin baino, areago zegoen loturik horrelako egoerek ekarri ohi dituzten atzera-aurrerekin (gehi nolabaiteko kezka ekonomikoarekin). Bizi aseguruaren saria kobratuko zutela behin argi geratu ostean, nire seme-alabak ohi bezain espresio

gabeak ageri ziren berriz. Bakarrik beilatokian, neska txikiak laztandu zuenean itxian sartu ninduten kalitate ezin txarragoko hilkutxa, atsekabe muttur bat sumatu nuen, iruditu zitzaidanez haurtzaroko oroitzapen batzuekin lotua. Hileta elizkizunean, bertaratutako gehienek erlojuari begiratu zioten apaizaren prediku –nire gusturako– luzeegiaren garaian. Negar malkorik ez: dolumina inguratzen zuen pasamoduko isiltasun hura bazen nahikoa esplizitua, bestalde artifizialak gertatuko ziren min adierazpenekin eteten hasteko. Hiletaren osteko egunetan, nire emazteak soseguari eutsi zion. Aste betean paketatu zuen, doluaz gain, nire arropa guztia kartoizko kutxetan, eta Kentucky Fried Chickenaren aurrean eskean aritzen den arloteari oparitu zizkion. Handik bi aste, ilea moztu, oinetako azazkalak margotu, erretzeari utzi, eta ozenago eta sarriago barre egiten hasi zen. Bizirik nengoela sentitua nuen besteen arbuioa, baina orain eskaintzen zidaten axolagabezia jasateko modukoa zen. Eta, kalkulu oker bat zela-eta modu baldarregian ohartarazten bazidaten ez nindutela aintzat hartzen, besterik gabe ez ikusiarena egin, adorea hartu, eta atsotitzen etsipen lakonikoan babesten nintzen: ari du, ari du, baina atertuko du; halako egun batean egingo du urtea. Batzuetan, bakartzearen ebidentzia irensten zailegia zitzaidanean, Rabassadako behatoki-

raino igotzen nintzen autoz, erretzera eta pentsaz-
tzera, nire inguruan aparkatutako ibilgailuetan bi-
koteak, gaztetasunari eta adulterioari dagokien bi-
zitasunaz, haragikerian ari zirela. Haien suharta-
sunak, motelgailuen kurrinketan eta beira lurre-
neztatuek apal dutako intzirietan adierazita, inda-
rra ematen zidan; indar gaizto samarra, ados, bai-
na indarra azken batean. Txango horietako bate-
tik bueltan hil nintzen. Ezin esan nezake istripu
bat izan zela. Ohiko arretaz gidatuz nindoan, men-
di azpian hedatutako hiriaren edertasuna mires-
ten, autoko irratia ren bozgorailuetatik albiste
emankizuna entzuten. Bihurgune bateko azken
metroetan, utzi beharra sumatu nuen, horrela,
«utzi» hitzaren zentzurik zabalenean. Ez da suizi-
dioda, pentsatu nuen, areago da arduragabekeria
kolpe bat. Aurrena, ez nuen errespetatu abiadura
mugatzeko seinale bat. Gero, asfaltoaren gainean
marratutako stop bat (hain higaturik zuen lehen
letra, *top* irakurri bainuen). Azkenik, semaforo go-
rri bat. Ingurabidera iritsi baino metro batzuk le-
henago, atso-agure bikote bat ikusi nuen kalea ze-
harkatzen. Haiek saihesteko, azeleratu eta, bat-ba-
teko maniobra batez, lerroz aldatu nintzen. Ez
nuen balaztatu. Autoak babes egitura jo, eta hautsi
egin zuen; hiruzpalau metroan hegan egin eta,
muturrez, bide lasterreko eskuin lerroaren gaine-
an lehertu zen. Ez zuen –miraria– talkarik eragin.

Hamazazpi minutu behar izan nituen hiltzeko; harritu nintzen kolpearen bortitza gorabehera irratiak piztuta irautea. «Honaino albistek», entzun nion esaten soinu-zaflada hanpatsu batek la-gundutako emakume ahots bati. Heriotza ez zen izan ez ezti eta ez garratz. Nik uste baino konple-xuagoa bai, beharbada bizirik nengoela ez nuelako kontu horretan batere pentsatu. Paralisi fisikoaren eta emozionalaren baturak eragotzi zidan minik su-matzea. Iruditu zitzaidanez, ordura arte erabilita-koaz bestelako pertzepzio maila batean, inguruko errealitatea iragazten nuen, nirekin baino gehia-go besteekin lotutako gertakari baten gisan. Hiltzat behin betiko eman baino lehen, tarte batean anbulantzia baten barruan iraun nuen. Mutil eri-zain hats-kirats bati esker, bizi ezaugarri batzuei –ez gehiegiri– eutsi nien. Egoeratik edozein osagai emozional bazterturik, iruditu zitzaidan ez zuela merezi ahalegintzea. Gainbizitza elbarritu baten eta berehalako heriotzaren arteko bat-egiteak errebelazio baten indarraz argitu zidan kontzien-tzia. Biziraupenerako bidea seinalatzen zuen erro-tulua ikusgarria zen, neoizko argi aldizkakoekin, «bi ordaindu eta hiru eraman» estiloko eskaintze-kin, eta oso seinale-erakustaldi erakargarriarekin. Itzulerarik gabeko bidea, ordea, hirurogei wateko bonbilla batek iradokitzen zuen. Nahiago izan nuen ezer egin ez eta, badaezpada, gerta zitekee-

naren zain geratu. Urte askotako inertziak bultzaturik, argi gutxienero bidea hartzen ikusi nuen neure burua, dena berehala amaituko zela sinetsita, susmatu ere egin gabe beste aukera hauxe nuela zain, alegia, nire gertuko bizitzak, ni gabe, bikain jarraitu ez ezik, hobera ere egin duela ikusteko aukera. Begira nola egiten duen barre seme nagusiak: lehen ahoa irekitzen ez, eta orain zibersexuan aritzen da bere burua *au pair* neska brasildartzat saltzen duen mutil suitzar batekin. Begira nola disfrutatzen duen neskatilak: beti aurkitzen zuen aitzakiaren bat institutura joan gabe etxean gelditzeko, eta orain goizean goiz jaikitzen da igerilekuak eta igerilekuak egitera joateko, huts-hutsen monitore depilatu baten ondotoxoan egotearren. Begira besteari, ene amodio handiari, nola bitlatzen duen bere irudia denda leihoetan islatua zeinen eder dagoen egiaztatzeko. Eta honako hauxe horrenbeste urteren ostean lortutako lehen garaipena banu bezala, irribarre egiteko premia sentitzen dut; izan ere, azkenik, zoriontsu egin ditut.

GURE GERRA

ORDENAGAILUAREN PAREAN esertzen naizen honetan, bataila baten historia idazteko asmoa daukat, zein alderdiren alde nagoen ezertan sumarazi gabe. Ahal izanez gero, halako urruntasun batez kontatuko ditut gertakariak, gerrak zentzugabeak direlako ideia –ez originalegia, onartzen dut– indartzeko moduko hoztasunez. Lubaki baten gainean eroritako lehergailuek eraginiko triskantza deskribatuta koan, ez naiz ibiliko ikuskariaren izugarrikeriaz atsegin hartzen. Asepsia guraz hasten naiz idazten, beraz. Hiru ordu geroago, gertakizunak edozein gudu-zelaitan kokatu ditudala, nire kabutan galdeztzen dut ea zertara datorren horrenbeste eustea, eta oreka-nahi hori ez ote den izango, azken batean, nolabaiteko beldurra: benetan esan nahi dudana adierazteko beldurra. Ez da zalantza berria, eta badut argudiorik aurka egiteko ere. Adibidez: idazle ba-

tzuk hitz ugaritasunaz eta pertsonaien psikologia azterketa zehatzaz baliatzen diren moduan, beste batzuegan urritasunak eta xehetasun gabeziak deskribatzen dute, egin ezaz, esaten ez duten guztia. Beti uste izan dut informazio gehiegiak arreta galarazten diola irakurleari, baina uste horretan jarraitzen al dut? Lehergailuak erori eta ia soldadu guztiak hil direla kontatu ondoren, barne ahots bat entzuten dut xuxurlaka: «Konta ezazu beste zer edo zer». Gogorra da nik neuk ezarritako aginduak hausteko tentaldia: irrikaz nago, oso larri zauriturik, hilzorian dagoen sarjentuarengana hurbiltzeko. Neure buruari eusten diot, batere pertsonaiarik ez nabarmentzeko asmoa neukalako, eta oinazeari zentzugabekeria pila formagabe baten gisan begiratzekoa. Barne ahotsak, ordea, ekin egiten dio: «Belauniko jarri, eta esaten ari dena entzun beharko zenuke». Hala egiten dut, beraz, jakitun norbere kodea honela haustea ahuldade seinalea dela, eta, beldur naiz, zahartzearena. Sarjentua errusieraz ari dela ohartzen naiz. Errusieraz ideia zipitzik ez badaukat ere, uste dut haren azken hitzak aldatu behar ditudala, buruz ikasi beharreko erantzukizuna banu bezala, haren seme-alabei, haren alargun nahigabetuari edo etorkizuneko belaunaldiei transmititzeko. Sarjentua esaten ari dena asmatzen jartzeko unean, borrokan aritzen naiz nire hizkuntza erabiltzearen inguru-

ko aurreiritzien aurka, argot berezkorik ez duela esan ohi baita, edozein errealitate egiantzez eta zehaztasunez deskribatzeko gauza badiren beste hizkuntza batzuen aldean. Sarjentuaren ezpainetara hurbildu, eta entzun egiten diot, auhena katalanera itzultzeko prest, beharbada ez ingelesa, alemana, gaztelania edo frantsesa bezain hizkuntza prestigioduna, baina beste horiek bezain eraginkorra. Ondorengoentzat uzteko bezain duinik ezer ez, jakinarazten dut: biraoka ari da. Errusieraz, egia da, baina hiltzorian dagoen batek lubakian egiten dituen errusierazko juramentuak hizkuntza guztietara eta lubaki guztietara estrapolatu daitezke, eta, beraz, unibertsalak dira. Inspiratzeko erreferentziaren bat edukitzeko, imajinatzen hasten naiz nolako biraoak egingo ote zituen sarjentu katalandun zauritu batek gerra batean, Espainiako gerra zibilean, adibidez, gertuen horixe baitagokit. Asmo hori gorpuztuz doan bitartean, gerraz hitz egin didaten pertsona guztiak gogoratzen ditut. Eta gogoratzen dut halaber horrek nola geldiarazi nauen gatazka hartaz ezer idaztetik, hain zuzen ere uste nuelako gehiegi hitz egiten zela gerraz, eta, batez ere, beti berdin: gure aitak hitz egiten zuen bezala; hain bere sentitzen zuen non «gure gerra» esaten baitzion. Eta imajinatzen ditut zer-nolako juramentuak jaulkiko zituzten borrokalari haiek 1936ko uztailaren eta

1939ko apirilaren artean. Eta fikzioak zenbait lizentzia hartzeko aukera ematen duenez, iritzia aldatu eta errusiar sarjentuari esanarazten dizkiot oraintxe bertan lubaki horretan banengo nik neuk esango nituzkeen juramentuen antzekoak. Sarjentuaren ezpainetara are gehiago hurbildu, lehergailuen burrunba eta zaurituen intziriak alde batera uzten saiaturik, eta, diziplinaz eusten ari nintzaion distantzia laburtu ondoren, ulertzen ez dudan hizkuntza batez esaten entzuten diodana moldatzen dut: «Putakume zikinok bota zituen ama». Hasieran harritu egiten nau biraoen gogorak, baina berehala jabetzen naiz: zango bat ebaki berri diote, berak ahopean «putakumeok bota zituen jainkoaren zeru puta» deitutakotik eroritako lehergailu batez. Gehixeago hurbiltzen banaiz, marmarka ebakitzen entzun diezaioket «zangoa birrindu didaten putakume alaeak»-en errusierazko baliokidea. Minaren adierazpen hitzezkoan bada, ohartzen naiz, arindutik zerbait, birao egiteak izua, haragi etena eta ezintasuna hobetoxe eramateko aukera emango balio bezala. Beste soldadu batzuegan, aldiz, oinaze adierazpenak negarrak, intziriak, oroitzapenak edo oihuak dira; adibidez, handik oso gertu txerri bat hilketaren egunean bezala odolusten ari den kaporal. Hari begiratzeak larritasun handia eragiten didanez, tartean beste norbait jarriz egiten dut, eta idazten dut sarjen-

tuak goitik behera begiratzten diola kaporalari, tinpanoak leherturik eta begiak lokatzez itsuturik dituela. Eszenaren dramatismoak kutsatuta, haren antzera egin, eta burua altxatzen dut zerua begiratzeko; zerua, egia esan, gelako sabaia da –tximista baten irudia gogorarazten duen arrakala batekin–, eta hegazkinak handik igarotzen dira. Ikartu egiten naiz ohartzean hegazkinak segituan itzuliko direla deskargatzera, eta ezin izango dudala ezer egin hori eragozteko. Eta idazten dut sarjentuak begirada –urdina eta aldi berean odolez gorria– altxatzen duela ez gela bateko sabairantz, ezpada trumoi eta tximista euriz blaiturik nahiago nukeen zeru baterantz. Pena da hori egiantzekoa ez gertatzea, ohartzen naiz; aditza dudanez, egoera klimatologiko desegokian oso zaila gertatzen da hegan egitea. Eta populazio bat bonbardatzeko –populazio errugabea, esatekotan nengoen, baina gelditu egiten naiz; izan ere, populazioaren errugabetasuna iritzi artikulu baterako edo saiakera baterako emango lukeen kontzeptua bada ere, orain ez dator harira– egun idealak egun eguzkitsuak omen dira, aitarekin Tibidaboko jolas parkera joaten ginenean «Hango itzal hura Mallorca da» esanarazten zion bisibilitate horietako batekin. Eta nik ez nuen tutik ikusten baina, pozaren pozez jolas parkera eramán ninduelako, baietz esaten nion, aurka ez egiteko, edo, nork jakin, az-

ken-azkenean beharbada bai, Mallorcaren itzal urrun baten itzala ikusten nuelako. Bada, horrelako ikuspen batek, nik uste, aukera emango lioke bonba-hegazkinen eskuadroiko komandanteari enegarren pasaldi bat egin, eta irratitik esateko: «Begira nola jausten diren lehergailuak, hegazkinen aurkako bateriarik ere ez dute; ez izateagatik, alfer horiek lotsarik ere ez dute: gorriak, mairuak, juduak, japoniarrak, separatistak, xarnegoak, drogazaleak, sudakak, marikoiak». Narrazioa hasieran xede hartutako hoztasunaz bideratzeko ezgauza, komandanteari ere juramentuak eta biraoak esanarazten dizkiot, baina oraingoan ez zait axola zein hizkuntzatan. Ez bailitzateke oso sinesgarria lubaki bonbardatuko sarjentuak bakarrik birao egitea, iruditzen zait. Eta berdin sinesgaitza litzateke armada batek birao egitea eta besteak ez. Nahiz eta armadetako batek armamentu sofistikuagoa eta uniforme berri-berriak izan. Nahiz eta armadetako bat legezkoa izan, eta bestea gaizkilea. Nahiz eta armadetako bat irabazlegaita izan, eta bestea galtzera kondenatua. Hizkera militarra berbera baita leku guztietan, diot nire kabutan iritzi-kolpe batean, eta are gehiago bataila baten erdian; bataila, berriz diot, nahiago nukeen euri egun batean girotu. Egun bat non txakurrak zaunkaz ariko baitziren errepede ondoan, bolborak eta izuak eroturik. Vietnamgo gerrako argazki haietan bezala,

jendea biluzik korrika batean, napalmak izuturik. Eta orduan, iheskorki eta une batez haria galaraziko didan modu batez, napalma nire garaiko arma gisa hartuko dut gogoan. Eta, izan ere, belaunaldi bakoitzak bere gerra daukala, eta gerra bakoitzak bere suntsipen-arma. Nahiz eta, ondo pentsatuz gero, nire belaunaldiak ez zuen batere gerrarik izan eta, hedabideen kutsatzeari esker, Vietnamgoa hartu zuen beretzat, ziur aski nahiago zuelako gerra urrun, *Life* aldizkariko argazki-erreportariak erretrataturako hura, gure gurasoenaren aldean, hain zikina, hain hondatzailea, hain gertukoa. Hori, baina, iritzi-hazi baten modura pentsatu, eta baztertu egingo dut, argumentuari berriz heltzeko, eta arreta odolean –absoluziorik gabe, testamenturik gabe, azken hitzik gabe hil diren soldaduen hesteetatik ateratzen den odolean– biltzeko. Zeren frontean ez baitago astirik azken hitzik esateko, erabakiko dut, tamainako baieztapenaren ziurtasunaz ez oso seguru. Ez dago astirik seme-alabak ohearen inguruan bildu, eta garrantzizko zer edo zer esateko ere; hain zuzen, horixe egingo zukeen gure aitak, hiltzeko unean gertu izan banindu eta ni Mallorcaren itzalaren itzala bezain urruti egon ez banintz. Baina ez naiz idaztera jarri gure aitaren heriotzaz hitz egiteko, ezta hura hil zenean ni haren ondoan ez izateko arrazioez ere. Izan ere, ezagutzen dut neure burua, eta

madarikatu egiten dut digresioetan galtzeko daukadan joera; digresiook ez baititut gogoko bestek idazten dituzten istorioetan, are gutxiago nik neuk idazten ditudanetan. Neure buruari aurpegi-ratzen diot, eta nire kabutan esaten, kontakizunean hain aurrera, inora ez daramaten itzulinguruetan galdu beharrean arreta istorioan jarri beharko nukeela, eta sarjentuaren larruan ipini berriro ere, haren arimari darion amorru eta ezintasun guztia transmititzeko gai izan. Amorruren adierazpen, tuz blaituriko biraoak; baina listua, loditu ahala, agortu egiten da. Amorru ozeanikoa, inoiz erabiliko ez nukeen adjektiboa, behin batean López Bulla sindikalistari entzun niolako (gogoan daukat, pentsatu nuelako: hori bai hitz egiteko modu bixia, eta are gehiago sindikalista batentzat). Orain, berriz, adjektiboak ez dit trabarik egiten, nahiz eta, arretaz pentsatuz gero, traba apur bat bai; baina azkenean erabakitzen dut, horrela irten bazait, zer edo zerengatik izango dela, eta bilatuko dudala aurrerago enfasi gutxiagoko adjektibo bat. Izan ere, orain lehenetsuna ez da adjektiboa, jarraitzea baizik, diot nire artean. Eta adjektiboa ez dut dagoeneko sindikalistarekin lotzen, ezpada lehen zirraborro honetan deskribatzen ari naizen eszenarekin. Eta pentsatzen dut mugitu beharra daukadala hegazkinak berriz igaro baino lehen, lehergailu gehiago deskargatu aurretik. Lehergailu al-

ferrikakoak, idazten dut, guztiak hilda edo hiltzear daudelako. Herri guztietako etxe guztiak suntsituta daudelako, eransten dut. Eta aspaldi da ez delako ezer geratzen bonbardatzeko eta, hala eta guztiz ere, lehergailuak jaurtitzen jarraitzen dute. Baina gelditu, eta atzera egiten dut apur batean; izan ere, hobeto pentsatuta, *alferrikakoa* lehergailuei aplikatu behar ez litzaiekeen adjektibo bat da: badirudi onuragarrikeria ere badagoela esan nahi duela. Hegazkinak berriz igaro baino lehen, nioen, sarjentuaren begietan jarri nahi dut arreta. Harengana hurbildu ahal banintz bezala eta, pribilegiozko lehen plano batean, mundua azken aldiz ikusten ari delako kontzientzia daukan begirada haren ñabardura guztiak atzeman. Eta badakit deskribapen horren mende egongo dela, neurri handi batean, narrazioaren zentzua. Eta amaitutakoan, aukeratu, landu, moztu, aldatu beharra izango dudala azken irudi honen deskribapena osatuko duten hitzetako bakoitza. Eta deskribatu, edonork irakurri eta, gainera, ulertu ahal izateko moduan deskribatu beharko dudala. Idatzi, adibidez, gure aitak irakurri ahal dezan (ez du irakurriko); eta, beharbada, hartaz harro egon, eta sarjentuaren ikuspegiak gordetzen duen guztia ulertu. Ikuspegi ez batere hanpatsua, hain egun eguzkitsuan kokatua non, itsutuko ez banaiz, arreta hiltzorian dagoenaren begiradan jartzera behartuko bainau; begirada

horrek lanak ditu batailaren axola gabe joan doan hodei bakarraren soslaiari jarraitzeko –hori ez dut nik esango: sarjentuak pentsatuko du–. Eta, puntu honetara iritsita, modu zakarregian ez amaitzeko, aurrez ikusten dut zero urdinaren kolore urdinaz hitz egin beharko dudala, eta hegazkinen fuselajeetan islaturiko eguzkiaz. Eta sarjentua nola dagoen, neke ozeanikoz (edo beste sinonimo egokiago bat), kaporal zenduaren hilotzari begira, eta hainbat soldaduren gorpuei, haiek ere hilak. Eta nola, hain zuzen ere hil baino lehen, hain zuzen ere beste bi lehergailuk (aurrena batek, gero besteak) bere albo-alboan eztanda egin baino lehen, ez daukan gogoan ez familia, ez haurtzaroa, ez dolumin ofizialak jasoko dituen emazte nahigabetsua, ez dagoeneko eduki ezin izango dituzten haurrak, ezpada azken hitz batzuk, errusieratik katalanera itzuliko ditudanak, fikzio ere izango den errealitate bati fidel izaten saiaturik: «Hau kaka, hau kaka zaharra, hau bai kaka zahar piloa!».

JAIOTZEN DENEAN, tantak oraindik ez daki hementik bi segundora lehertu egingo dela harraskako hondoaren kontra. Ilusio handiz, tutuaren azken bihurgunetik labaindu, eta kanilaren bokalera ateratzen da. Fluoreszenteen argiak itsutu egiten du. Begirada tunel luze batean tinkaturik izan ondoren, azkenik, kanpora irteten den tren-bidaiari baten antzera sentitzen da. Jakin-minez, kanilaren muturrean gelditzen da. Inertziak balantza eragiten dio eta, kulunka labur baten ostean, hutsera erorarazten. Uste sendoz baino gehiago itxaropen handiz hasitako ibilbide horretako lehen milimetroetan, zorabioak hartzen du. Oharkabean pasatzeak bezainbeste kitzikatzen du hegan egiteak. Izan ere, haren presentziak ez du sukaldearen ordena aldatzen; familia erabiltzailearen adierazpen bihurtze aldera, dekoratzaileak egindako esfortzu

guztia gorabehera, sukaldeak antz handiegia dauka oraindik inspirazio-iturri izan zuen katalogoko argazkiarekin. Altzariak eta akaberak albo batera utzita, hasierako proiektuan aurreikusi gabeko xehetasun batzuk nagusitzen dira: salda egin berriaren usaina dago, eta, hozkailuaren atean itsatsita, Simpson familiaren imanek haur baten eskolako menuari eusten diote: oraintxe, hain justu tantak hutsera jauzi egiteko plazera deskubritzen duen unean, haur hori oilasko-hezur batekin itozten ari da ikastetxeko jangelan. Kanilaren eta harraskaren arteko distantzia arra eta erdikoa da, tarte laburra, tantak zeharkatzeko erabiliko duen denbora bezain laburra. Ez da jostaketan luzatzen: fluoreszenteen argia iragazi, eta erlojuaren esfera islatzen du, han orratzen beste gurutzaketa bat gertatzen ari baita, gurutzaketa historikoa. Artean korrante baten parte zen garaiarekin alderatuta, oraingoa liluragarria iruditzen zaio. Lehen itxuran beharbada ez zaio igarriko, baina tantaren irudia handituko bagenu, geldiarazi eta hiru dimentsiotan erreproduzitu eta mugimendua emango bagenio (mugimendu birtuala, noski, hipotesi sekuentzial baten gainean egituratua, eskala handituan, eta ordenagailu bidez), emozio baten taupada ia ezin sumatuzkoa nabarituko genuke; emozioaren oinarri, alde batetik, erorikoak dakarren arriskuaz oharkabean egotea, eta, bestetik, norbere inguru-

neaz informazio falta izatea. Erritmoa, adibidez: tanta bat aldi behin, beti aldi bera, erloju kontrako txirrindulari lasterketa batean bezala. Edo desku-britzea kanila bat ondo ezin ixteak, edo junturaren higadura dela-eta tantaka aritzeak, bizitza alda die-zaiokeela, eta eragin dezakeela, tanta bihurtu eta gero, pribilegio bihurtzea ibilbide hori, itxuraz hutsala. Muga baten gisan, harraskaren goialdeak azken tarte markatzen du. Zeruertza gertu-gertu dago. Erori ahala, tantak emendatu egiten ditu bere piasua, bere bolumena eta bere barne-tentsioa. Nekez eusten dio forma esferikoari. Inertziak azala tenkatzen dio. Hainbeste, merkuriozkoa izan nahi bailuke. Paisaia ilundu egiten da. Ikuspuntu gizatiar batetik, oso bizkor gertatzen da guztia. Tarentzat, ordea, une horrek barnean ditu zahartzaroaren zati bat eta helduaro osoa. Nahikoa denbora, arestian bizi izandakoa ahaztu, eta bakarrik bizitzako lehen garaiak gogoratzeko; eta, bera baino ausardia handiagoz, kanila beretik burutxo ateratzen ari den beste tanta horretan bere burua ezagutzeko. Elkarren antza dute urtanta bik bezala, ohartzen da. Eta irudipena dauka seme edo alaba (edo neba edo ahizpa) hori ikusi izanak justifikatu egiten duela aurreikusi bezala amaitzen den bidaia hau: blaust. Tanta lehertu, eta mila puskatan zabaltzen da; puskak, harraskako altzairu herdoilezinaren ukituari ezaxola, be-

rriz elkartzen dira, baina tantaren formaz izan ga-
be zipriztin modura, deus ez, haritxo mirrin bat
baino ez, eta, ekilore-olioaren hondarren traba
gainditu ondoren, irristatu egiten da –dzanga–
isurbideak xurgaturik.